

OSAKIDETZAREN AURKEZPENA

Zuzendaritzak aurreko Mahai Sektorialean aipatutako hainbat gai zehaztu nahi dituela dio:

1) OPE

Gai hau adosteko beharra eta asmoa azaltzen du:

- 2014 baino lehen OPEa deituko duela dio (urtea bukatu aurretik) eta 2015eko lehen hiru hilabeteetan beste deialdi bat egingo duela:
 - 2014→ 354 lanpostu (177 turno askerako eta 177 barne-promoziorako)
 - 2015→ 594 lanpostu (297 turno askerako eta 297 barne-promoziorako)
- Guztira bi urteen artean 948 lanpostu (474 turno askerako eta beste 474 barne-promoziorako).
- Aipatzen dute turno askerako arazoak dauzkatela erreposizio tasak direla eta, barne-promoziorako ez dago horrelako arazorik eta aukera gehiago dago. Ez dute argitzen barne-promozioko lanpostuak betetzen ez badira turno askekoak handituko diren.
- Gehiagorako borondatea omen dute, baina ez dute berme nahikorik eta ez dute OPE bat prozesua hasi ondoren judizializatzea eta etea nahi.
- Martxan jartzeko hainbat gai zehaztu behar direla diote eta horretan sindikatuen partaidetza nahi dutela.
- OPE aurretik barne-mobilitate prozesu bat zabalduko dute (Mahai Sektorialean lantzen hasitako dokumentuak oinarritzat hartuta) eta ondoren lekualdatze lehiaketa bat egingo omen dute (irizpideak negoziatuko omen dituzte).

2) LANPOSTU SORRERA

- Garai latzak direla eta zailtasunak dituztela diote. Orain arte bere lehentasuna enplegua mantentzea izan da eta orain berau kontsolidatzea tokatzen da.
- 100 lanpostu sortzea planteatzen dute irekitako zentru berriengatik:
 - Zentru berriak (Buenavista, Salburua, Zamalgana, Hospital de Gernika, etab)
 - Lehentasunezko zerbitzuak (Osasun kontseilua).
- Osakidetza-entzat honek lanpostuak haztea suposatzen du kodea emango dietelako eta plantilla estrukturala 25807 lanpostutatik 25907 lanpostutara igoko delako.
- Interinitate bitartez lanpostuak kontsolidatzea nahi dute, behin-behinekotasuna 2015 eta 2016 urteen artean %18 txikitzeko, horrela lanpostuak finkoagoak izango dira eta behin-

behinekotasuna jaitsi egingo da.

Gai honi buruzko kontrola eramateko sindikatuoi plantilla osoaren datuak ematea proposatzen dute.

3) KONTRATAZIO ZERRENDAK

- Zerrenda berriak egiteko, 2011ko arautegia jarraituko dute, behin-behineko xedapena ahalbidetu barik, beraien zerbitzu juridikoen ustetan zerrenda berrien irekierarekin efektu barik gelditzen baita (SATSEren eskakizuna dela eta txosten juridikoa bidaliko dute)
- Era berean plaza hartu ostean eta lanpostura sartzeko hilabeteko epean bete gabeko lanpostuak ez da bete gabeko zerrendetatik deituko epe hain murrizteko eskaintza egitea egokia iruditzen ez zaielako, behin-behineko izendapenen bitartez lanpostua betez.

4º) EUSKALDUNTZEA

- Euskalduntzeko baimendutako lan uzteen eta lan orduz kanpoko kurtsoen % 50eko igoera proposatu dute.
- Aurrekontuaren igoeraren ondorioz eta Euskara planaren jarraibideen bitartez baliabideen zehaztapena ahalbideratzen dute.

5º) GARAPEN PROFESIONALA

- Egunean gauden legealdian hasitako ebaluazio prozesuekin berriro ekin nahi dute mahai sektorialean akordiorik lortzen badute eta Eusko Jaurlaritzako aurrekontuetan ahalbideratu ahal den neurrian.
- Haien ustetan 70.000 langileei dagokien neurriak 8.000ei dagokienaren gainean jarri behar direla momentu honetan.

6º) ORDAINSARIA ETA LAN JARDUNALDIA

- Lehendabizi Eusko Jaurlaritzari hitza dagokiela diote eta gero Osakidetzan hitz egin daitekeela.

AKORDIOAK ADOSTUKO DIREN NEURRIAN egindako proposamenak habian jarriko direla esan dute, hornitze prozesuen salbuespenarekin, hauek habian jarriko baitira nahiz eta gizarte aldearekin adostasunik ez lortu. Hau da, ez dute inolako hobekuntzarik egingo sindikatuarekin adostasunik egon ezean eta langileriaren desmobilizazio lortzen ez den neurrian.

Neurriak ahalbideratzeko sindikatuen laguntza bilatzen dutela diote.

Elkarlana izateko gogoeta bilatzen dutela diote eta negoziatzeke asko geratzen dela diote.

Emandako neurriak hobe daitezkeela (banan-bana edo denak batera)

Azkenik Sindikatu bat ere hurbiltasunik erakutsi ez duela onartu egiten dute.

ELAREN ERANTZUNAK

- Sindikatuok adostutako gaien inguruan ez dugu erantzunik jaso:
 - 1- 2010eko kontratazio baldintzetara itzultzea. Lan kargak, lanpostuak eta zerbitzuen kalitatea bermatzen dutenak.
 - 2- Lan jardunaldiaren murrizketa (Osakidetzak berak onartzen du 1481 lanpostuen galera 2012an izandako lan jardunaldiaren handipena dela eta)
 - 3- Lanpostuen finkatzea. LEP ostean behin-behineko langile gutxiago egon beharko ziren, egindako proposamenarekin ordea urtero aurreko urtean baino behin-behineko langile gehiago egongo dira. Behin-behineko lanpostuan dauden 8.000 langileen finkatze prozesu bat nahi dugu.
 - 4- 2011ko Garapen Profesionalaren deialdiak bere zehaztaperen guztietan behingoz buka daitezzen.
- Eskubideak kentzeko beraien kabuz erabaki dute eta hobekuntzak ahalbidetzeko adostasuna bilatzen dute. Hau TXANTAIA besterik ez da, ez dut ezer hobetuko beste guztia ontzat ez badidazue ematen eta mobilizazioak eteten ez badituzue. Gure laguntza ez dute behar hobekuntza txiki hauek egin ahal izateko.
- Gure ustez, interinitateak behin-behineko lanpostuak dira, formula bat bestearen truk. Eskaini duten murrizpena bete-gabeko lanpostuak interinitateekin beteko dituztela esan dute, legeak inposatzen duena hain zuzen. Osakidetzak badaki langileria kopurua 25.800 pertsonetatik gorakoa dela, %30eko behin-behinekoen langile kopurua ezin da onartu eta benetako enplegu guztia finkatu behar da. Ez da posible Osakidetzan behin-behineko 8,000 langile egotea.
- Proposatutako 100 lanpostuekin ez dute enplegua sortzen, pertsona hauek jadanik lanean ari dira, lanpostu hauei dagokien kodigoa sortzea besterik ez da. Gainera kopuru hori ez da nahikoa irekitako zentru bat guztiz betetzeko, Gernikaren kasuan hain zuzen ere. 100 plaza sortzea efektu mediatikoa besterik ez da, ez enplegua sortzea.
- Enplegua finkatzean birjartze tasaren gainetik pasa behar da. Zentzu honetan ELAk Enplegu Publikoaren Legeari ekarpenak egin dizkio. Legeak ahalbidetzen duen moduan bide bat proposatu dugu enplegua finkatu ahal izateko, borondate politikoa besterik ez da behar. Ertzaintzan posiblea izan bada Osakidetzan ere egin daiteke, baina Gobernu honen

lehentasunak desberdinak dira antza denez.

- Garapen Profesionalaren arazoa konpontzeko oraindik benetako borondatea dagoen itxoiten ari gara. 2015eko aurrekontuetan ahalbidetuko da?
- Lan jardunaldia murrizteko bideak daudela aldarrikatzen dugu, lizentzien bidez adibidez. Osakidetzan bakarrik egoera honek enplegua suntsitu baitu.
- Euskararen normalkuntzaren inguruan, pozten gara baliabide gehiago jartzeaz, baina planteamendu orokor bat falta da. Behin-behineko langileei lehenetasuna eman behar dietela uste dugu, hauek euskalduntzeko arazo gehiago baitituzte. Eman behar dituzten pausuak ezagutu nahi ditugu eta ze arrazoi dauden kategori ezberdinek aurkezten duten euskalduntze prozesuan. Zehaztugabeko planteamendua dela uste dugu.
- Krisi kontextua ulertzea eskatzen digute. Azpiko arazoa aberastasunaren banaketa ezegokia da eta gizarteak bere Osasunarekin egin nahi duen esfortzua erabakitzea, kontutan izanda bataz-beste ELGE baino 1.000 milioi gutxiago erabiltzen dugula sortzen dugun aberastasunarekin alderatuta. KONTESTUAREKIN EZ GAUDE ADOS. Egoera zaila da baina Osasuna lehenetasuna da.
- Beste gai batzuk negoziatzeko akordioak inposatzen dituzte. Adibidez, LEP kasuan, proposamen eskas hau onar dezagula baldintzei eta diseinuari buruz negoziatu ahal izateko, ELAK bere iritzia eman eta partekatu nahi du, baina horretarako Zuzendaritzaren proposamenak ez ditugu aldeztatu aurretik onartu emango.
- Proposatutako 4 puntuen aldeko Osakidetza duen borondatea ikusi nahi dugu. Momentuz, mobilizazioak eteteko ez dugu aldatarik sumatu.

(SINDIKATU GUZTIEK PROPOSAMENAK ZALANTZAZKOAK ETA NAHIKOAK EZ DIRELA PENTSATZEN DUTE)

GALDE-ESKEAK

(ELAK EGINDAKOAK)

MUTUEN LEGEAREN INGURUAN

ELA – Lehen Arretako medikuen profesionaltasuna zalantzan jartzen ari da eta beraien lan-kargak handitzen hasi dira mutuen eta mediku inspektzioen ondorioz egin behar dituzten lan burokratikoak direla eta. Osakidetza praktika honen aurka ageri dadila, bere langileak babes ditzala eta Mutuekin lankidetzara etetea eskatzen diogu.

OSAKIDETZA- Osasun Politika dela diote. Ez dago planteamendu zehatzik honen inguruan. Informazio bilduko dutela eta aurkeztuko duela.

OPE 2011

ELA – ELAk LEP prozesuak nola landu diren eta gardenak izan daitezen proposamenak zehazten dituen idatzia erregistratu du, prozesu batzuetan akatsak egon dira, Osakidetza ez du onartu nahi akats hauetan intentziorik egon ez denik, horretarako onena erabat gardenak izatea da. Beste gai batzuk aztertu behar dira eta Osakidetza honi buruz Parlamentuan egongo den partehartzeari aurreratu egin behar zaio.

OSAKIDETZA – ELAk aurkeztutako idatzia kontutan izan beharko duela LEP prozesu berriari ekiten hasiko dionean. Oso ondo gorde duela siote aztertu eta ezartzeko.

EBOLA

ELA – Barne gestioa oso txarra izan dela adierazi dugu eta antolakuntza bakoitza bere erabakiak hartu dituela. Abuztutik Osasun eta Segurtasun Batzordea biltzea eskatu genuen eta beste neurri batzuk har zitezela eskatu genuen eta ez dugu erantzunik jaso. Guk egindako gehikuntzak ez zuen gasturik suposatuko.

OSAKIDETZA – Egoerak aldatuz joan direla erantzun dute. Antolakuntza zerbitzu bakoitza bere kabuz aurrerapausuak ematen egon dira. Madrilen gertatutakoa planteamenduen aldaketak ekarri du, lan egiteko bidea ezarriz eta hortik zerbitzu bakoitzera igorritz aplikatu behar izana.

Urtea bukatu aurretik Osasun eta Segurtasun Batzordearen deialdia egingo da.

Ostiralean, urriaren 24an deitutako bilera informatiboa izango da eta Batzordean zehaztasunetara joko da.

BIZKAIKO IKUZTEGI PUBLIKOA

ELA – Honen inguruan konpromiso bat zegoen eta bete beharko zen, aldiz, enpresa pribatu bati egokitu zaio ekintza honen betebeharra.

OSAKIDETZA – Informatu behar dela erantzuten du.

LEKUALDATZE-LEHIAKETA

ELA – Hasieran LEPerako aurkeztutako plaza kopurua murriztu egin denaren arrazoiaren txosten osoa nahi dugu.

OSAKIDETZA – Bukaerako balantzea egiten denean informazio zehatza ahal den modu gardenenean pasako zaigula diote.

SINDIKATUKO INFORMAZIOA HEDATZEKO EZARTZEN DIZKIGUTEN ZAILTASUNAK

ELA – Zentru batzuetan ez digute informazioa ikus daitezkeen tokietan jartzen uzten. Antza denez, eskubide hau urratzeko kanpaina bat dago.

OSAKIDETZA – Ahalbidetzen saiatuko da.

TOLOSALDEA

ELA – Osasun zentruak eta anbulategiak Ospitale pribatu baten menpean egoteko ESI bat sortzeko asmoa dago?

OSAKIDETZA – 2015eko Urtarrilaren 1ean Donosti eta Tolosalderako prozesua habian jarriko da. Baliabide espezifikoaren posibilitatea dagoela adierazi dute. Beste Mahai Sektorialean azalduko da.

KONTRATAZIO ZERRENDIA

ELA – Noiz irekiko dira kontratazio zerrenda berriak?

OSAKIDETZA – Zerrenda berriak Azaroan irekiko dira.

